



SUB-BORRADOR

S-B

9. KOSTUEN EGITURA

Gure enpresak duen ezaugarri berezi bat, **BIC enpresarekin hitzarmen komertzial** edo azpikontratazio bat duela da. Horrek esan nahi du haiek gure produktuaren ekoizpen-prozesua gauzatuko dutela. Horregatik **ekoizpen prozesuan sortzen diren gastuak ez ditugu**



sufrituko, baina gure produktuen bidez lortutako portzentu bat haientzat bideratuta egongo da.

Gure enpresak izango dituen **kostu finkoak** hurrengoak izango dira: langileen soldatak, gure lokalaren alokairua (webgunea eramateko eta gure bezeroei aholkuak emateko eta entzuteko erabiliko dugu), gure produktuak garraiatzen dituzten garraio-

enpresei ordainduko dioguna, gure webgunea kudeatzeko erabiliko ditugun elementu teknologikoak eta publizitate enpresei ordainduko dioguna telebistan eta aldizkarietan iragarkiak jartzeagatik. Gure patentea mantentzeko kuota jakin bat ordaindu beharko dugu.

Kostu aldakorak berriz, hurrengoak izango dira: erabilitako lehengaiak (hornitzaileak errazten dituztenak) hauek gure

salmenta bolumenen arabera erosiko ditugulako. Elektrizitatea, ura eta argia talde honetan ere sartu ahal dezakegu.



Hasieran izango ditugun gastuak etorkizunean espero ditugunak baino handiagoak izango dira. Hasieran sozietate

mugatu bat eratzeko beharrezkoa den kapitala jarri behar dugulako (3.005 euro), eta hasierako publizitatea handiagoa izango delako, gainera patente bat eratzeko orduan hasieran egin beharrezko ordainketa handiagoa da etorkizunean beharrezkoak diren ordainketak baino.

Amaitzeko, gure enpresa **ecofriendly** izatea nahi dugu, horregatik kutsatzen dituzten beste enpresa baino kostu gehiago izango ditugu



ekoizpen-prozesuan eta lehengaiak erosteko orduan, material ekologikoak garestiagoak direlako. Gainera gure produktua guztientzat eskuragarria izatea nahi dugu, horren ondorioz ez dugu gastu mota hauek amaierako prezioa handitzea.

Laburbilduz, hauek izango dira gure kostuak:

Kostu finkoak	Kostu aldakorak
Langileen soldatak	Erabilitako lehengaiak
Alokairua	Hornitzeak (ura, elektrizitatea)
Garraio enpresari ordaindu beharreko kuota	Beste zerbitzu batzuk (telefonoa)
Erabilitako elementu teknologikoak	-----
Patenteak	-----